

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1973

EBAZPENA, 2026ko apirilaren 30ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria, GSM Medioambiente, S.A. erakundeari Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren aitorpena ematen diona.

Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren bidez, «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» aitorpena arautu zen, emakumeen eta gizonen berdintasuna errazten duten baldintzak sustatzeko eta berdintasun hori eragozten duten oztopoak kentzeko, eta gizarte- eta lan-eremuan emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren eta tratu-berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak sustatzeko, bai eta erakundeek eremu horretan egiten duten lana aitortzeko ere.

GSM Medioambiente, S.A. elkarteak aurkeztutako eskabidea eta horretarako aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, eta dekretu horren 8. artikuluan aurreikusitako Balorazio Batzordeak 9. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak aplikatu eta zuzendaritza honi aldeko proposamena egin ondoren, egiaztatu da erakundeak betetzen dituela aitorpena lortzeko eskatzen diren baldintzak.

Ondorioz, eta 11/2014 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, bidezkoa da eskatutako aitorpena ematea.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– GSM Medioambiente, S.A. erakundeari «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» aitorpena ematea, aitorpen hori arautzen duen otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuan ezarritako zehaztapen eta baldintzen arabera.

Bigarrena.– GSM Medioambiente, S.A. erakundeak aitorpen hori erabili ahal izango du ego-kizat jotzen dituen irudi korporatiboko elementu guztietan, indarrean dagoen bitartean, otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren 12., 13. eta 14. artikuluen arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari, hilabete epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, zuzenean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegi eskudunean, bi hilabete epean, ebazpena EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 30a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria,
MIREN ELGARRESTA LARRABIDE.